

# PROIEKTUAK GAUZATZEKO DEIALDIA

## LE JARDIN DES MÉTIERS D'ART ET DU DESIGN-EN (JAD), SÈVRES, FRANTZIA

**EPEA:** OTSAILAK 3 – MARTXOAK 31 2025

Deialdi hau Bilbao Arte Fundazioa eta Frantziako Enbaxada Espainian - Institut Français Espagne erakundeen arteko lankidetzatik abiatzen da, eta bere proiektu artistikoa garatzeko artista bat hautatzea du helburu, Le Jardin des métiers d'Art et du Design (aurrerantzean JAD) delakoan, Sèvres-en, Paris (Frantzia).

Bilbao Arte Fundazioaren helburua EAEn bizi diren artisten nazioartekotzeari laguntzea eta artista horien prestakuntza eta profesionalizazioa bultzatzea da. Horretarako, bi hilabeteko egonaldia eskaintzen du JADen, sorkuntza garaikidea, artisautza artistikoa eta diseinua lantzen dituen ekoizpen zentroan.

Deialdi hau Bilbao Arten egoitza artistiko bat izan duten artistei zuzenduta dago.

1

### GAI INTERESGARRIAK

- Programa honetan parte hartzea ez da bateraezina mantentzeko, bidaietarako eta beste gastu batzuetarako bestelako laguntza osagarriak jaso ahal izatearekin. Kanpo geratzen dira, soilik, Sèvresen ohiko presentzia eragozten dutenak, denboran bat datozen egoitzez gozatzea dakartenak.
- Laguntza honen izaeran edozein diziplina artistiko-plastiko sartzen da, betiere banaka eta deialdi honetako epeen barruan baliatzen bada. Hala ere, bereziki baloratuko dira JADen filosofiarekin bat datozen proposamenak, batez ere artisauen eta diseinatzaileen laguntzara bideratuak.
- Proiektua egoitza-eparean barruan amaitzeko konpromisoa edozein arrazoirengatik betetzen ez bada, Bilbao Arte Fundazioaren zuzendaritzak egokia iruditzen zaion erabakia hartu ahal izango du. Bere erabakia apelaezina izango da.

## **NORI ZUZENDUTA DAGO**

2023-24. urtera arte Bilbao Arte Fundazioaren beka-programako egonaldi batean proiektu bat garatu duten, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden artistei.

## **EGOITZAREN BALDINTZAK**

Artistak honako hauek eskuratuko ditu:

- 4.000 €mantenu-, ekoizpen- eta bidaia-gastuetarako, adierazitako egunetan.
- JADen egoitza izango duen bi hilabeten bitartean, honek emandako ostatua eta estudioa Parisko Sèvres-en.

Artista onuradunak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Frantziara bidaiatu aurretik aurkeztea: batetik, bankuko kontuaren titulartasunaren agiria, eta, bestetik, bizi- eta mediku-aseguruen eta aireko ebakuazioa eta aberriratzeari barne hartzen dituen garraioaseguruen egiaztagiriak.
- Egoitza etenik gabe egitea ezarritako egunetan, eta deialdi honetan aurkeztutako proiektua garatzea.
- Erakunde anfitrioiak bere egonaldian proposatutako jardueretan parte hartzea.
- Memoria bat aurkeztea eta egoitzaren emaitzaren aurkezpen publikoan parte hartzea, parte hartzen duten erakundeek (Bilbao Arte eta/edo JAD) ezartzen duten lekuan.

## **AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA**

1. Egingo den proiektuaren proposamena
2. NANA eta errolda-agiria
3. Zerga-betebeharrak ordaindu izanaren egiaztagiria
4. Gizarte Segurantzako kuoten egunean izatearen egiaztagiria
5. CVa
6. Aurretik egindako lanen dossier laburra

## **EPEAK ETA AURKEZTEKO MODUA**

Eskaerak bi .pdf artxibo bidaliz aurkeztuko dira [bilbaoarte@bilbao.eus](mailto:bilbaoarte@bilbao.eus) helbidera, gaian JAD+NOMBRE adieraziz: batean proiektuaren proposamenarekin (1. puntua) eta bestean gainerako dokumentazioarekin (2. puntutik 6.era).

Bidaltzeko **azken eguna** azaroaren 15a izango da (23:59). Hautatutako artistaren izena azaroaren 30a baino lehen argitaratuko da.

## **OINARRIEN ONARTZEA**

Deialdira aurkezteak berak esan nahi du parte-hartzaileek oinarriak onartzen dituztela.

## **DATUEN BABESA**

Pertsona bekadunek onartzen dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Bilbao Arte Fundazioaren fitxategi batean sartzea deialdia bera kudeatu ahal izateko. Fundazioak honako helbide honetan du egoitza: Urrazurrutia Kalea, 32, 48003, Bilbo, Bizkaia (Espainia). Era berean, Le Jardin des métiers d 'Art et du Design (JAD) erakundearen titulartasuneko fitxategian sartuko dira, helburu berarekin, 6, Grande-Rue - 92310 Sèvres, Paris (Frantzia) helbidean egoitza duena.

Datuak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak [bilbaoarte@bilbao.eus](mailto:bilbaoarte@bilbao.eus) / [contact@le-jad.fr](mailto:contact@le-jad.fr) helbidera bidalitako posta elektronikoaren bidez erabili ahal izango dira. Gaian sarbide-eskubideak adieraziko dira eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsiko da, baita jakinarazpenetarako helbide bat eta NANaren edo antzeko beste egiaztagiri baten kopia ere.

## ERANSKINA: JAD-I BURUZ

<https://le-jad.fr/>



4

*JAD, Le Jardin des métiers d'Art et du Design artearen eta diseinuaren arteko hibridazioa sustatzeko diseinatutako lekua da.*

*Sorkuntza garaikideari eskainitako ekoizpen-zentroa, JADek, 2022ko irailean ireki zenetik, hautatutako hogeitahi bat artisau eta diseinatzaile hartu ditu bere tailerretan, hautagai-zerrenden deialdi baten esparruan, bere jardunaren bikaintasunagatik eta bere lanbidearen ikuspegi berritzaileagatik. JADen barruan, banakako eta taldeko jarduerak sustatzeko diseinatutako ingurune eta baliabideez baliatzen dira.*

*Ezagutza, praktika eta esperimentazioaren trukearen bidez elkar ikastea eta "elkarrekiko ongarrantzea" sustatzen duen arrago gisa diseinatuta, JADk lankidetzak eta transmisioa kokatzen ditu bere proiektuaren erdigunean.*

*Artearen eta diseinuaren lanbideen arteko elkarriketa emankor hori kultura-programazio aberats baten barruan sustatzen da, haren hezkuntza-eskaintzaren barruan, bai eta hainbat publikori egokitutako bitartekotza baten barruan ere: eskolak, esparru sozial eta solidarioak, helduak, taldeak, gizabanakoak.*



*Tokiko artisau eta diseinatzaileentzako baliabide-zentroa ere bada JAD, MakerLaben inguruan edo topaketa profesional ugari antolatuz (hitzaldiak, tailerrak, prestakuntzak).*

5

---

*JAD, berrikuntza, kultura eta transmisioa uztartzen dituen proiektua, eskualdeko profesionalei, sortzaileei eta publiko orokorrari arreta emateko. Gainera, Sena Garaietako Departamentuak sorkuntza garaikidearekin, artisautza artistikoarekin eta diseinuarekin duen konpromisoaren sinbolo izan nahi du.*